

Karel Čapek
Arrabioen gerra

Koro Navarro
Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:

Válka s mloky

1. argitalpena: 2024ko urtarrilean

© Azaleko margolanarena: 2024, Alain Urrutia

© Hiru liburuen atariko marrazkiena: 2024, Iván Landa

© Itzulpenarena: 2024, Koro Navarro

© Hitzaurrearena: 2024, Koro Navarro

© Argitalpen honena: 2024, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.

ISBN: 978-84-9109-910-9

LG: D15-2024

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



KAREL ČAPEK

1890-1938

HITZAURREA

Karel Čapek (1890-1938) idazle, antzerkigile, kritikari eta kazetari txekiar bat izan zen. Zientzia fikzioa-gatik egin zen ezaguna, bereziki honako *Arrabioen gerra* (1936) eleberriarengatik eta *robot* hitza («lan gogorra») sortu zuelako *R.U.R. (Rossum's Universal Robots, 1920)* antzezlanean (Aspalditik dago euskaratua; jokatu ere egin zen euskaraz: *R.U.R. Erroboten lantegia*, Xabier Monasteriok itzulia, 1991). Gainera, esanahi politikoko lan asko idatzi zuen bere garaiko nahasmendu soziala landuz, eta gogor egin zuen Europan faxismoaren eta komunismoaren gorakadaren aurka. Literaturako Nobel sarirako izendatu bazuten ere, ez zioten eman; ospe handia zuen Čapekek ordu-rako, mundu anglofonoan batez ere. Hori dela-eta, hona zer dion Peter Kussi txekiar-amerikar kritikari eta itzultzaileak (*Toward the Radical Centre: A Karel Čapek Reader, 1990*):

«1936an Nobel sariaren hautagai nagusietako bat zen Čapek. 50 urte bete gabe, argitaratuak zituen sei eleberri, sei antzezlan, eta ezin konta ahala foiletoi, istorio, kritika-lan, bidaia- eta haur-liburu. Mundu osoan jokatzen ziren haren lanak, bukatu berria zuen *Arrabioen gerra* –Europako diktaduren eta bere garaiko

beste astakerien satira bikaintzat hartu zen-, eta lorpen estilistiko garrantzitsutzat hartua zen haren eleberrien trilogia, *Ordubal* (1933), *Povvretion* (Meteoroa, 1934) eta *Obycejny život* (Ohiko bizitza bat, 1934). Areago, ez ziren produkzioaren kalitatea eta helmena bakarrik Čapek halako hautagai baliotsua egiten zutena. Garrantzi handikoa zen halaber haren maila pertsona gisa, herri aske, setiatu batean, gizon demokrata letradunaren eredu gisa zuen posizioa: filosofoa, humanista, umorista, goren mailako literatura-gizonen adiskidea, T.G. Masaryk txekoslovakiar (lehen) presidentearen adiskide mina eta biografoa. (...) Urte txarra zen 1936koa gizon demokrata letradunentzat. Suediar Akademia beldur zen ez ote zuen Alemania nazia irainduko antifaxista tolesgabe bat ohoratuz; horregatik ez zuen jaso Čapekek Nobel saria».

Asko bidaiatu zen Čapek European barna, eta jende garrantzitsua ezagutu zuen. Zenbait bidaialiburutan deskribatu zituen bere esperientziak; egilearen marrazkiez hornituak daude testuak, eta oso marrazki politak dira, estilizatuak oso, eta umoretsuak beti. Badira *Gutunak Ingalaterratik*, *Gutunak Italiatik*, *Bidaia Espainiara*. Azken horretan Andaluzia eta zezenak agertzen dira batez ere, pertsona arrotz batek ikusiak:

«Azkeneko zezena atera zen arte ezin izan nuen bidea zabaldu kanpora ateratzeko (...), lotsatua nintzen nolabait ere, baina ez dakit zergatik, nire krudelkeriagatik ala nire ahultasunagatik...».

Bada liburu horretan atal bat euskal pilota-jokoari eskainia, eta miresmenez mintzatzen da hartan pilotariez:

«Pilotarekin alderatuta, euliak euli-hiltzekoarekin ehizatzea dirudi tenisa. Eta, era berean, inolako erakuskeriarik eta ahaleginik gabe egiten dituzte pilotariek malabar-joko, jauzi eta itzulipurdi horiek, eltxoak harrapatzen ari diren txoriak balira bezala (...). Mendietako euskaldunak eta nafarrak aritzen dira joko horretan, munduari beren txapel biribilak eman zizkioten euskaldun berberak (...), Meillet irakasleak jakinarazi zidanez, haiek izan ziren Mediterraneo osoko lehen biztanleak (...). Europako herririk txikienetako bat da euskalduna (...), eta bekatua litzateke inoiz hondar baliotsu horiek ere galtzea».

Nazionalista zen Čapek, eta antinazionalista aldi berean; nazionalista garapena ukatzen zitzaien nazio txiki zapalduetan, hala bere herrian: 1918an sortu zen Txekoslovakia independentea, Čapekek 28 urte zituela. Eta antinazionalista, herri handi, boteretsu eta agresi-boen kasuan: 48 urte zituen Alemania naziak Txekoslovakia inbaditu zuenean. Urte hartan bertan hil zen, pneumoniaz sendagileen esanetan; baina, hala diote batzuek, Neville Chamberlainen aterkiak bihotzean egin zion ziztada izan omen zen heriotzaren egiazko eragilea, Čapek anglofilo sutsuak ezin izan baitzuen onez eraman britainiar lehen ministroak Hitlerrekin egin zuen tratu lotsagarria. Izan ere, Čapeken jaioterria (Malé Svatoňovice/ Klein Schwadowitz aleman izena), Bohemia zen (Austro-hungariar Inperioaren parte

orduan), eta aldi berean Sudeteak, Hitlerrek eskuratu nahi zuen eskualdea, hizkuntza nagusia alemana zuena (ez Čapekek ordea).

Alemania naziak Txekoslovakia inbaditu zuenean (1938ko iraila, Sudeteetatik hasita), heriotza-zigorra zekarren Gestapok Karel Čapek antifaxista abertzale txekiarrarentzat; baina, zorionez, hila zen ordurako idazlea (1938ko abendua), eta berandu heldu ziren naziak haren etxera. Emaztea eraman zuten, Olga, eta bizirik atera zen. Karelen anaia Josef, ordea, margolari bikaina, idazlea eta poeta, Karelen lagun mina eta lankidea zenbait obratan (*R.U.R.*-en esate baterako: berak asmatu omen zuen, ez Karelek, *robot* hitza), hura ere kondenatua zegoen eta harrapatu zuten; eraman zuten Bergen-Belsen kontzentrazio-esparrura eta han hil zen 1945ean.

Karel Čapek eta bere emaztea artistei eta herritar garrantzitsuei eskainitako Pragako Vyšehrad hilerri zoragarrian daude lurperatuak. Karelen hilobiaren ondoan beste bat dago, hutsik: anaiarena behar zuena, haren gorpua ez baitzen agertu. Honela dio idazkunak: «Hemen egon behar zuen lurperatua Josef Čapek margolari eta poetak. Hilarria urruti». Umorea beti, beltza bada ere.

* * *

Itzultzen ari zarenean, maiz sufritzen duzu. Zuzenketa-lana ezin eramanezkoa izan daiteke: buruz dakizu testua, baina itzulpena oraindik ondo geratzen ez. Eta

baita zuzenketari heldu aurretik ere, jakina: zaila da testua, edo luzea, edo konplexua, edo korapilotsua, edo aspergarria... motiboak asko izaten dira, eta era askotakoak. Egilea gorrotatzerainokoak batzuetan.

Arrabioen gerran, ordea, oso-oso gauza berezia gertatu zait: algara batean aritu naiz lanean. Kapitulu askotan. Eta, iruditzen zait niri, liburu honek halako grazia egiten badio itzultzaileari –azken batean, itzultzaileak ezin du testua abiadura normalean irakurri, lanean ari da–, nolako barreak ez ote ditu egingo batere enbarazurik gabe diharduen irakurleak? Eta barrez ari ez nintzenean, gustura oso jatorrizkoaren estilo-ugaritasuna imitatu/berregiteko eginahalak eginez.

Badut susmo bat: egilea ere barrez aritu zen liburu hau idazterakoan. Ikus bestela adibidetxo bat, liburuko bigarren zatiaren hasieran eransten den bibliografia:

«Cf. G. Kreuzmann, *Geschichte der Molche*. Hans Tietze, *Der Molch des XX. Jahrhunderts*. Kurt Wolff, *Der Molch und das deutsche Volk*. Sir Herbert Owen, *The Salamanders and the British Empire*. Giovanni Focaja, *L'evoluzione degli anfibi durante il Fascismo*. Léon Bonnet, *Les Urodèles et la Société des Nations*. S. Madariaga, *Las Salamandras y la Civilización*, eta beste batzuk».

Hona zer idatzi duen Wolff alemaniarra: *Arrabioak eta aleman herria*; ingelesak –Sir Herbert Owenek–, *Arrabioak eta Britainiar Inperioa*; urlehortarrak eta faxismoa lotzen ditu italiarrak,

frantsesak –suitsarra izan daiteke– urodeloak eta Nazioen Liga; arrabioak eta zibilizazioa Salvador de Madariaga espainolak. Eta aurrerago, arrabioen gerra hasten denean:

«Gau hartan bertan, *Van Dijk* Holandako gerraontziak hiru bider tiratu zuen Goenong Api uhartean zeuden arrabio mordo baten kontra; *Hakodate* gurutzatzaile japoniarrak hiru granada bota zituen Ailinglaplap arrabio-uharte txikian; *Bechamel* frantses kanoi-ontziak hiru tiroekin eten zuen Rawaiwai uharteko arrabio-dantza».

Liburuaren lehen zatian daude zelebrekeriarik handienak: barrez lehertzekoak dira 6. eta 7. kapituluak, «Yatea urmaelean» eta «Yatea urmaelean (jarrapena)»; 9.a, «Andrew Scheuchzer», «Arrabioen sexu-bizitzaz» (eranskina). Azken horretako zati batzuk irakurri eta Woody Allen datorkit gogora (gogoan izan behar da arrabioek, aurreko aipuan agerienez, dantza oso-oso berezia egin ohi dutela ilargipean, eta dantza horrek haien sexu-bizitzarekin lotua dirudi).

«Esaten da arren sexu-banakotasunaren ilusio atabiko eta zentzugabea gainditzea dela dantza kolektibo honen funtzioa; Ar Kolektiboa da talde jirakari, mozkor, frenetiko hau, Senargai Kolektiboa eta Kopulatzaile Haundia, besterik ez, eztei-dantza egin eta eztei-erritu handira abandonatzen dena; eta, harritzekoa, bitarte horretan, erritu horretatik aparte, emeak gogogabe aritzen dira arrain edo txibia bat mastekatzen».

Dena ez da umorea, ordea. Bada atal bat liburuaren erdialdean bestelakoa guztiz, narrazioa eten egiten baita. (Giza) protagonistetako batek, Povondra jaunak, arrabioen kontuan oso inplikaturik baitago, arrabioez prentsan topatzen duen guztia gordetzen du, eta egileak ebakin horietako batzuk aurkezten ditu liburuan. Ebakin bat ere ez huts egiteko eskatu nahi diot irakurleari; eskertuko dit aholkua. Gehienak umoretsuak dira, baina bat bada, «XX. MENDEKO BUKANEROAK», latza oso.

«Animaliak dantzan ari ziren bitartean estutu genuen haien inguruko zirkulua. Gizonek pronto zeuzkaten arraunak eta xuxurlaka ari ziren, ahotsa goratu gabe, gehiago gaua zelako arrabioek ezer adituko zutelako baino. «Aurrera, bizkor!», esan zuen agintean zegoenak. Korrika jo genuen zirkulu zirimolatsuaren aldera; kankateko ilun batez jo zituzten arraunek arrabioen bizkarrak. Arrunt ikaratu ziren orduan arrabioak, eta erdian babesten saiatu ziren edo arraunei itzuri eginez itsasora bueltatzen, baina arraunkadek atzeraka eragiten zieten berriz ere, eta han bueltatzen ziren ia denak, oinazez eta beldurrez deiadarka. Erdiraino bultzatu genituen arraunen esku-tokiekin, metatu genituen estu-estu, elkarren gainka, geruzatan; hamar gizonek eusten zieten arraunez eraturiko eskorta batean, eta beste hamar gizonek beren arraunekin akuilatzen eta jipoitzen zituzten arrastaka edo korrika alde egiten saiatzen zirenak. Haragi beltzeko mataza bat zen hura, oinazez bihurrika, arrabio denak aztoraturik karaka eginez, eta haragi hartan

kolpe ilunak erortzen ziren. Zabaldu zen tarte bat bi arraunen artean; atera zen arrabio bat handik arras-taka, eta durduzaturik erori zen makila handi batekin lepondoan eman zioten kankateko batez; han joan zen gero beste bat, eta hirugarren bat, harik eta hogeiren bat geratu ziren arte han etzanda. «Itxi!», agindu zuen nagusiak, eta itxi zen arraunen arteko zirrikitua. Bully Beach-ek eta Dingo mestizoak, arrabio durduzatu bat hanka banatik hartuta, hondarrean herrestan eramaten zuten txalupetara, zaku bizigabe bat nola. Batzuetan arroken artean trabatua geratzen zen arrastaka zera-maten gorputza; orduan marinelak tiraldi bortitz eta amorruzko bat ematen zion, eta, hala, hanka hausten zitzaion. «Ez duk ezer», marmar egin zuen Mike zaharrak, nire aldamenean baitzegoen. «Haziko duk ostera ere, gizona». Arrabio durduzatuak txalupetan pilatzen ari zirela, bota zuen nagusiak lehor: «Prestatu hurrengoak». (...)

Gutziz desagertu da barrea, eta algara gutxi izango da hortik aurrera. Irribarreak izango dira, baita barreak ere tarteka, bukaeraraino dago-eta umorea. Baina umore serioa da; umore serioa, txekiar literatura askoren ezaugarria omen dena.

Barrez arituko zen egilea liburu hau idaztean, eta askatasun handiz jokatzuz, irudipen hori dut nik. Jolasean. Pertsonaia askok (arrabioak ere pertsonaiatzat hartuz) egiazko pertsonen izenak dituzte: Charles Mercier doktorea, esate baterako, «...Toulongo portuko arrabio txit jantzi bat zen, eta arrakasta nabarmenez mintzatu zen sekzio konikoen teoriaz geometria

ez-euklidearrean...», eta errealitatean britainiar psikiatra bat izan zen, forentsea... eta eromenean espezializatua. Mme. Maria Dimineanu dator segidan, Genevako erakundearen delegatua; pertsonaia asmatua da. «(...) hain geratu zen dama dotore, bikain hau inpresionatua Mercier doktorearen jokamolde apalarekin, haren jakintzarekin (“Pauvre petit”, esan omen zuen hasperenka, “hain itsusia da!”), non suhartasunez heldu baitzion ekimen berezi bati, alegia, arrabioak Nazio Batuetako kide gisa onartuak izatea». Aurrerago agertuko dira Sir Francis Drake Almirante Nagusia, Parlamentuan hizketan, eta Sadeko Markesa, «frantses publizista gailena, zeina normalean bikainki informatua egoten baitzen...».

Eta gehiago ere bada errealitate/fikzio jolas honetan: egia dira *Andrias scheuchzeriz* esaten direnak, eta egiazkoa da marrazkia. Den-denak ez, Cuvierri dagozkienak zertxobait aldatu dira:

(Arrabioen gerra): «Animalia hilen eskeletoak antolatu genituenean, aurkikuntza interesgarri bat egin genuen: ia-ia berdinak dira arrabio hauen eskeletoa eta Johannes Jakob Scheuchzer doktoreak Öhningen-go harrobian aurkitu zuen arrabio baten eskeletoaren hondakin fosilak, Scheuchzer doktoreak berak deskribatu bezala *Homo Diluvii Testis* lanean (1726an argitaratua). Haren lana hain ederki ezagutzen ez duten irakurleei gogorarazten diegu Scheuchzer doktore gorago aipatuak Uholde Handiaren aurreko gizaki baten hondakintzat hartu zuela fosil hura. “Mundu heziko kideok”, hala idatzi zuen, “hemen erantsitako irudian

ageri denez, zeina zuraren gaineko grabatu eder batean aurkezten baitut, Uholde Handiaren lekukoa izan zen gizon bat da honako hau, dudarik gabe; (...) Gizon fosil bat da, aurretik irudikatua; horra bada gizadi desagertuaren monumentua, zaharragoa erromatarren, greziarren eta baita egiptoarren edo sortaldeko beste edozein herriren hilobi guztiak baino”. Geroago, Cuvierrek ontzat eman zuen Öhningen-go eskeletoan arrabio fosildu baten aztarrena, eta izendatu zen *Cryptobranchus primaevus* edo *Andrias scheuchzeri tschudi*, aspalditik desagertutzat eman izan den espeziea».

(Wikipedia): «*Andrias scheuchzeri* urlehortar isatsdunen espezie bat da, aspaldi desagertua, *Cryptobranchidae salamandra* familiakoa. 1726an, Johann Jakob Scheuchzer fisikari eta naturalistak Öhningen-en (Konstanzako barrutia, Alemania) aurkituriko fosilen lagin bat deskribatu zuen, *Homo diluvii testis* (latinez, “Uholdearen lekuko gizona”) izenaz identifikatuz, eta uste izan zuen Uholde Handian itotako gizon batena zela. (...) Cuvierrek 1811n aztertu zituen hondakinak, eta jakinarazi zuen arrabio batenak zirela, ez gizakienak. (...) 1831n Holl-ek *Salamandra scheuchzeri* gisa sailkatu zuen, eta sei urte geroago Tschudi-k genero berri batean sailkatu zuen *Andrias* espeziea. Konbinazio berriak –*Andrias scheuchzeri*–, Scheuchzer gogorarazten du, baita gizakia zelako ustea ere: ‘Scheuchzerren gizona’».

Haren ondorengoak dira, beraz, gizakiei hainbeste arazo sortuko dieten arrabio hauek. Bestalde, eta errealitate-fikzio jokoari dagokionez, aipatu beharrekoa dela uste dut Britainia Handiari eta Ingalaterrari libu-

ruan ematen zaien tratua: egileak Brexita iragartzen duela dirudi. Hala, munduko nazioek (nazio aberatsek, jakina) erabaki gutxi asko bateraturen bat hartzen dutenean... «...banaka-banaka, itsasaldeko nazio guztiak agertu ziren (erabaki) haren alde (Britainia Handiaren salbuespenarekin, jakina)». Aurrerago: «(...) herri zibilizatu guztietan egin ohi den bezala (Ingalaterraren salbuespenarekin)». Eta gauzak oso gaizki jarri direlarik:

«Aste batzuk pasatuta, janari-urritasun larria zabaldu zen Britainiar Uhartetan. Haurrei bakarrik ematen zitzaizkien ogi-zati bat eta te- edo esnekoilarakada batzuk egunean; britainiar nazioak adore paregabeaz eraman zuen hura, baina hain behera egin zuen, non bere lasterketa-zaldi guztiak jan baitzituen. Galesko printzeak, bere esku propioaz, egin zuen lehen ildoak Golfeko Errege Klubean Londreseko umezurztegiatarako azenarioak hazteko. Patatak sartu zituzten Wimbledoneko tenis-zelaietan, eta garia landu zen Ascoteko lasterketa-pistetan. “Lortuko dugu, baita sakrifiziorik haundienak egin behar baditugu ere”, jakinarazi zuen Parlamentuan Alderdi Kontserbadoreko buruzagiak; “britainiar ohoreari, ordea, ez diogu sekula uko egingo”».

Egileaz, Karel Čapek, datuak biltzen hasi, eta non irakurtzen dudan oso britainiarzalea zela. Hango demokrazia miresten zuen oroz gain, eta lagun handiak zituen G.K. Chesterton eta Bernard Shaw. Baina, ikusi dugunez, horrek ez zion inondik ere eragozten kritiko zorrotza (eta umoretsua) izatea. Frantziar ari denean ere iragarlea dirudi:

(...) muturreko ezkerak, haren kontra, eskatu zuen alboratzeko erabat arrabioak, langile-klasearen etsaiak baitziren, lan gehiegi egiten baitzuten eta debalde kasik kapitalismoaren zerbitzuan, arriskuan jarriz era horretan langile-klasearen bizitza maila. Eskatera hura areago indartzeko, greba bat izan zen Bresten, eta manifestazio itzelak egin ziren Parisen; zauritua gogotik izan zen, eta Deval ministroak dimisioa eman behar izan zuen.

Eta beste sorpresa bat, eta ostera ere iragarle-ahalmenak, *Miss Li* antzezle ederrak eta haren lagun millonarioak arrabioekin egin nahi duten film baten izenburua pentsatzen hasten direnean: *Narrasti fosilek ile-horiak nahiago* adibidez. Jakina, pentsatu nuen nik, *Gentlemen Prefer Blondes*, Howard Hawksen pelikula, Jane Russell eta Marilyn Monroe-rekin. Baina gero konturatu nintzen pelikula gerokoa dela, 1953koa...

Ingelesak eta frantsesak baino askoz gutxiago agertzen dira alemanak arrabioen artean. Baina hortxe daude, mehatxagarri beti; baita juduak ere, hondamendiaren bezperan: «*Molche, wirft Juden heraus!* (alemaniar foiletoa: Arrabioak, kanpora itzazue juduak!)». Eta Alemanian omen da bereziki larria «Arrabioen Auzia», «Judu Auzia» ren oihartzuna eginez. Bestalde, bukaera aldeko kapitulu oso bat («Wolf Meynertek bere lana idazten du») eskaintzen zaio nazien filosofia zoroari; Friedrich Nietzsche mintzatzen da Wolf Meynerten ahotsean.

* * *

Peter Kussiren liburuan, Arthur Millerrek egiten du aurkezpena. Honela bukatzen da Millerren atala:

«Elkarren kontrako ideiez betea dago Čapek, irribarre edo barre eginarazten diguten ideiez; baina, aldi berean, belarriak estali eta ihes egin nahi izaten dugu. Garai haietan, ordea, haren istorioak harrigarriak gertatzen ziren inondik ere, beldurgarriak baino gehiago. (...) Orain Čapeken amesgaiztora heldu gara. Bere uste faustiarrak –ezer ez dela ezinezkoa–, ia errealista egiten du. (...) Gure zientzia, asmo moralez gabeturik, gure planeta ezin arnastuzko gasetan biltzen eta ixten ari den honetan, ostera ere Čapek irakurtzeko garaia da, haren barre axolagabeagatik, eta barre horren azpian dagoen giza itsukeriagatik.

»Hori esanda, idazle honi buruzko gauzarik inportanteena behar da azpimarratu: artea. Ezin atseginagoa da Čapek irakurtzea: zenbait istorio harrigarri eta ezin ahaztuzkoren kontalari zoragarri eta txundigarria da».

Umoreak (umore serioak) eta satirak leku garrantzitsua dute txekiar literaturan: horra Kafka (alemanez hark), Hašek, Hrabal, Kundera, gurean gehiena eza gutzen direnak aipatzeagatik: denek jo dute ironiara, satirara, barrera. Irudia ere garrantzitsua da literatura honetan; eta iruditik zinemara, jauzi hori erraz egin du literaturak, Jiří Menzel eta Jiří Trnka zinemagileen eskutik bereziki.

Bestalde, Čapek bizitza osoan egon zen kazetaritzatik gertu; estiloa zorrotzen ziola pentsatzen zuen, eta bere garaitik gertu egoten laguntzen ziola. Areago,

Čapekek uste zuen kazetaritza oso modu egokia zela idazle batek bere nazioarekiko betekizuna aurrera eramateko. Kussik dioenez, oso ideia txekiarra omen da hori ere, idazle sortzaileak aldi berean izan behar duela nazioaren irakaslea eta bozeramailea.

Txekiar Errepublikako literatura gehiena txekieraz idatzita dago gaur egun, baina historikoki, txekierazko literatura-ekoizpenaren zati handi bat beste hizkuntza batzuetan idatzi zen, latinez lehendabizi eta alemanez gero. Čapek lanean aritu zen garaian –bi mundu gerren arteko urteetan–, Txekoslovakia aurrenekoz nazio beregaina zelarik, eginkizun abertzalea zen idazlearena, eta halaxe izan zen Čapekentzat ere. Txekiar hizkuntza aberastu eta finkatu zutenen artekoa izan zen. Eta, partez, itzulpenaren bitartez: poesia frantsesa asko itzuli zuen, eta itzulpen-lan hura txekiar poeten belaunaldi berri baten inspirazio-iturria izan omen zen.

Euskarara ere txekierazko lan asko itzuli da, go-goan harturik bereziki herrialde eta hizkuntza «txiki» bateko literatura dela: gorago aipaturiko *R.U.R. Erroboten lantegia*, Xabier Monasteriok euskaratua; Bohumil Hrabalen *Zorrotz begiratutako trenak*, eta Jan Nerudaren *Mala Stranako ipuinak* Fernando Reyk; eta Karlos Cidek egile txekiar garrantzitsu askoren lanak euskaratu ditu, besteak beste, Josef Skvoreckyren *Mundu mingotsa* eta Literatura Unibertsala bilduma honetan bertan, Milan Kunderaren *Izatearen arintasun jasanezina* eta Jaroslav Haseken *Xveik soldaduen onaren menturak*: nik dakidala, bera da txekieratik zuzenean itzultzen duen euskaldun bakarra. Irakurri

nion apropos hautatu zituela inork gutxi zekizkien bi hizkuntza bere lanerako, txekiera eta euskara. Ez da hautu txarra. Ea inspirazio-iturria gertatzen diren guretzat ere obra horiek denak.

Koro Navarro

Karel Čapek
Arrabioen gerra

LEHEN LIBURUA
Andrias Scheuchzeri



Van Toch kapitainaren zelebrequiak

Bilatzen baduzu mapan Tana Masa uharte, ekuatorean bertan topatuko duzu, Sumatraren mendebaleko aldean; baina *Kandong Bandoeng* barkura igo eta galdetzen badizu J. van Toch kapitainari zer den Tana Masa hori, uharte horrexen parean bota baititu oraintxe aingurak, biraoka arituko da puska batean, eta gero esango dizu Sondako uharteetako zulorik zikinena dela, Tana Bala bera baino ziztrinagoa, eta Pinos edo Banka bezain madarikatua; merkataritza-agente mozkor bat dela han bizi den gizon bakarra, barka atrebentzia –kontuan hartu gabe, jakina, batak zorritsu horiek–, gizon kubatar eta emakume portugaldar baten sasikumea, eta lapurragoa, paganoagoa eta zerriagoa kubatar eta zuri guztiak batera hartuta baino; eta gauza madarikatu bat baldin bada mundu honetan, Tana Masa madarikatu horretako bititza madarikatua dela gauza hori, jauna. Orduan zuk, inondik ere, galdetuko diozu zergatik bota dituen bere aingura madarikatuak toki horretan, hiru egun madarikatuz bertan geratzeko asmoa balu bezala, eta kapitainak purrustadaka eta ernegarazten erantzungo dizu, eta marmarka jakinaraziko dizu *Kandong Ban-*

doeng barkua ez litzatekeela honaino etorriko kopra madarikatuagatik edo palma-olioagatik bakarrik, erraz asko entenditzen da hori, eta, gainera, zuri ez zaizu inporta, jauna, nik neure agindu madarikatuak dauzkat, eta arren, jauna, zeure gauzez ardura zaitez. Eta etorri handiz eta oparotasunez arituko da gero maldizioka, zaharra izanik bere adinerako oraindik sasoian dagoen barkuko kapitain bati dagokion eran.

Baina, galdera petralak egin ordez, uzten badiozu Van Toch kapitainari gustura aritzen marmarka eta biraoka, gauza gehiago jakingo duzu askoz ere. Ez al zaio bada igartzen barrena husteko premia duela? Uztazu gizona bakean, garraztasun horrek bere kabuz aurkituko du hustubidea.

–Pentsa, jauna –botatzen du kapitainak ahots dardartiz–, Amsterdameko jende horri, han goiko judu madarikatu horiei, ez al zaie bada bat-batean bururatu, “Perlak, adiskidea, ea perlak aurkitzen dituzun”. Erotu beharrean omen dabil jendea perlak direla-eta.

Une horretan kapitainak tu egiten du, suminduta.

–Argi dago, perletan nahi dute horiek beren dirua sartu. Zuek denok gerrak nahi dituzuelako gertatzen da hori, ezta? Diruagatik beldurrez, hori da dena. Eta horri krisi deitzen zaio, jauna.

Van Toch kapitainak zalantza egiten du une batez, hasiko ote den zurekin ekonomiako arazoez, beste ezertaz ez da hitz egiten gaur egun-eta. Baina hemen, Tana Masaren aurrean, bero handiegia egiten du, eta jendea alfertu egiten da. Van Toch kapitainak eskuari eragiten dio eta marmarka mintzatzen da:

–Perlak, erraz esaten da! Jauna, orain bost urte agortu ziren Zeilanen, Formosan perlak harrapatzea debekatu dute... Goiko horiek, ordea... «Saia zaitez, Van Toch kapitaina, arrantza-leku berriak bilatzen. Zoaz uharte txiki madarikatu horietara, han haztegi osoak topatuko dituzu beharbada...».

Kapitainak, mespretxua agertuz, zintz egiten du zaratatsu bere musuzapi urdin argian.

–Europako jendilaje horrek uste du munduak oraindik ezagutzen ez dituen gauzak aurki daitezkeela hemen. Ene Jainkoa, bai jende ergela! Azkenean nahiko dute sudur-zuloak ere miatzea batak horiei, ea mukien artetik perlak ateratzen zaizkien... Arrantza-leku berriak! Putetxe berri bat ireki dute Padangen, hori bai, baina arrantza-leku berriak? Neure patrikak baino hobeto ezagutzen ditut nik uharte hauek, jauna, Zeilandik hasi eta Clippertongo uharte madarikatu horretaraino... Inork uste badu aurkituko dela oraindik hemen irabaziak ekarriko dituen zer edo zer, bada, bejondeiola, jauna! Hogeita hamar urte badira itsaso hauetan nabilela, eta tentel horiek nik zerbait deskubritzea nahi!

Itoko du amorruek Van Toch kapitaina halako eskakizun iraingarrian pentsatzen duenean.

–Bidaltzea dute hasiberriren bat hona, eta ahoa bete hortz geratuko dira hark deskubritzen dituen gauzekin; baina hori eskatzea, zeini eta toki hau Van Toch kapitainak bezain ongi ezagutzen duenari... Ulertuko duzu, jauna, European oraindik egin litezkeela aurkikuntzak, baina, hemen... Usnan etortzen da jendea

hona, ea zer jan dezaketen, eta ezta hori ere; zer erosi eta saldu dezaketen, horrexetara etortzen dira denak. Jauna, geratuko balitz zer edo zer tropiko madarikatu hauetan sos zikinen bat balio duena, baziren honezkero hiru agente hemen, beren musuzapi zikinak astinduz gelditzeko keinua eginez zazpi naziotako barkuei. Holaxe dira hemen kontuak, jauna. Hobeto ezagutzen dut nik hau Bere Maiestate Erreginarean Kolonietako Ministerioko enplegatuek baino, atrebentzia ez bada.

Van Toch kapitainak ahaleginak egiten ditu bere bidezko kolera mendean hartzeko, eta lortzen du, gorabeheraren baten ondoren.

–Ikusten al dituzu bi alfer miserable horiek? Zeilango perla-arrantzaleak dira, Jainkoak barkatuko ahal dit, zingalesak, halaxe sortu zituen Jainkoak-eta, nahiz eta, egia esatera, zergatik sortu zituen ez dudan nik entenditzen. Orain nirekin daramatzat morroi horiek, jauna, eta topatzen dudanean *Agentzia*, *Bata* edo *Aduanak* idatzirik ageri ez den kosta-puxkaren bat, uretara botatzen ditut perla bila. Horko alproja txiki hori, horko hori, laurogei metro behera ere iristen da urpean; duela gutxi, Printze uharteetan, laurogeita hamar metrora jaitsi eta zinema-kamera baten biradera arrantzatu zuen, jauna; baina perlak... Perlarik ezta batere! Arrunt jende inutila, zingales hauek. Horra bada zein den nire eginkizun madarikatua, jauna: palma-olioa erosten dudalako itxurak egin eta, bitartean, perla-haztegi berriak bilatu. Igual bururatuko zaie halako batean kontinente berri bat deskubritu behar dudala, ezta? Hori ez da kapitain merkatari zintzo bati

dagokion eginkizuna orde; J. van Toch jauna ez da abenturazale madarikatu bat, ez jauna.

Eta horrelaxe jarraitu zuen hizketan: Handia duk itsasoa, eta denboraren ozeanoak ez dik mugarik. Egin ezak tu itsasoan, gizona, eta itsasoa ez duk igoko; mada-rika ezak patua, eta patua ez duk hunkituko. Eta hola, prestakuntza eta itzulinguru askoren ondoren, heldu gara azkenean *Kandong Bandoeng* holandar barkuko kapitaina, J. van Toch, hasperenka eta arneguka, txalupa batera jaisten den unera, Tana Masako *kampongera* eraman dezaten kubatarraren eta portugaldarraren mestizo mozkorrekin negozioez jardutera.

–*Sorry, Captain* –hala dio azkenik kubatarraren eta portugaldarraren mestizoak–, baina hemen, Tana Masan, itsaskirik ez da batere hazten. Batak zerri zikin horiek –nazka handiz eransten du–, marmokak berak ere jaten dituzte. Denbora gehiago ematen dute uretan lehorrean baino, emakumeei arrain-kiratsa darie, ezin duzu imajinatu... Zer esan behar nizun? A bai, emakumeez galdezka ari zinen...

–Eta ez al dago hemen kosta-puxkaren bat –galdetu zuen kapitainak– batak horiek uretan sartzen ez direna?

Kubatarraren eta portugaldarraren mestizoak buruari eragin zion:

–Ez, ez dago, jauna, ez bada Deabruaren badian... baina hura ez da zuretzat.

–Eta zergatik ez?

–Ba... hara ezin delako inor joan. Edango duzu basoerdi bat, ezta, kapitaina?

–*Thanks*. Marrazoak al daude bada?

–Marrazoak eta... gainera... –esan zuen mestizoak zezelka–. Toki txarra da, jauna. Batak horiei ez litzaieke gustatuko han inork muturra sartzea.

–Zergatik?

–Deabruak daude han, jauna. Itsasoko deabruak.

–Eta zer dira horiek, itsasoko deabruak? Arrainak?

–Ez, ez dira arrainak –erantzun zuen mestizoak saiheska bezala–. Deabruak dira, besterik gabe, jauna. Itsaspeko deabruak. Batak-ek *tapak* deitzen diete. Tapak. Itsasoaren barrenean omen dute deabru horiek beren hiria. Hartuko duzu beste basoerdi bat?

–Eta nolako tankera dute itsasoko deabru horiek?

Sorbaldak jaso zituen kubatarraren eta portugaldarraren arteko mestizoak.

–Deabruak bezalakoak dira, jauna. Nik behin bat ikusi nuen... hobeto esanda, burua bakarrik ikusi nion. Txalupa batean nentorren Haarlem lurmuturretik bueltan... eta, halako batean, non ateratzen den kasko tzar bat uretatik...

–Eta, nolakoa zen? Zeren antza zuen?

–Kuia baten antza zuen, batak buruak bezalakoa zen, baina erabat soila, jauna.

–Eta ez ote zen bataka?

–Ez, jauna. Esan dizudan bezala da. Toki hartan ez zaizu batak bat uretan sartuko. Gainera, keinuak egiten zizkidan beheko betazalarekin, jauna. –Mestizoak dardardar egin zuen, ikarak airean–. Beheko betazalarekin, horra. Begia ia osorik estaltzen die. Horrelakoxeak dira tapak.

Van Toch kapitainak bere behatz lodien artean jirarazi zuen palma-ardoaz beteriko baso txikia.

–Ez hintzen bada mozkorra egongo?

–Bai, jauna, mozkorra nengoen. Bestela ez nintzen toki hartan ibiliko arraunean. Batakei ez zaie gustatzen inork deabru horiei enbarazu egitea.

Van Toch kapitainak buruari eragin zion.

–Horra, gizona, deabruak ez dituk existitzen. Eta, existituko balira, europarren tankera izango zitean. Arrainen bat edo holakoren bat izango zuan.

–Arraina! –esan zuen totelka kubatarraren eta portugaldarraren arteko mestizoak–. Arrainak eskurik ez du, jauna. Ni ez naiz bataka, nagusi, ni eskolara joana naiz Bandjoeng-en. Akordatuko naiz igual oraindik Hamar Aginduez eta zientziak frogatu dituen beste zenbait irakaspenez; gizon eskolatuak primeran daki deabrua eta animalia bereizten. Galdetu batakei, jauna.

–Beltzen sineskeriak dituk horiek, gizona –agertu zuen kontua kapitainak, gizon kulturaz jantziaren gehiagotasun arduragabeaz–. Zientifikoki adieraziz, gauza zentzugabea duk, deabru bat ezin duk uretan bizi-eta. Zer egingo luke han? Ez jaramonik egin natiboen berritsukeriei, mutiko. Deabruaren badia deitu zioan norbaitek leku horri, eta harrezkero batakek beldurra ziotek. Horrelakoxeak dituk kontuak –azaldu zuen kapitainak, bere esku-ahur lodiaz mahaia astinduz–, han ezer ez zegok, mutiko, argi zegok, zientifikoki mintzatuz.

–Halaxe da, jauna –adierazi zuen bere adostasuna Bandjoeng-en eskolatutako mestizoak–, baina hala ere

gizon zuhurrak ez du zertan ezer bilatu Deabruaren badian.

Gorri-gorria jarri zen Van Toch kapitaina.

–Zer? –oihu egin zuen garrasika–. Kubatar zikina, zer uste duk hik, ikaratuko naizela ni hire deabru horiekin? Ikusiko diagu hori! –esan zuen, duintasun handiz altxatuz bere ehun kiloko gorputz-puska–. Nik ez diat nire denbora hirekin alferrik galduko, negozioez arduratu beharra diat-eta. Baina ondo gogoan izan ezak kolonia holandarretan ez dela deabrurik existitzen; existitzekotan ere, kolonia frantsesetan existituko lituzkek. Han, bai, han litekeena duk. Eta, orain, deitu-iok *kampong* madarikatu honetako alkateari.

Ez zen denbora askoan ibili beharrik izan aipatu agintariaren bila. Kokoriko eserita zegoen mestizoaren dendaren ondoan, azukre-kanabera bat zurrupatuz. Adineko jaun bat zen, baina askoz ere meheagoa zen Europako alkateak izaten direna baino, eta guztiz biluzik zegoen. Haren atzean, apur bat erretiraturik distantzia egokia mantentzeko, herrixka osoa zegoen kokoriko eserita, emakumeak eta haurrak barne, noiz filmatuko zituzten zain inondik ere.

–Aizak, mutiko –esan zion Van Toch kapitainak alkateari malaysieraz (bazuen hari holandesez edo ingelesez mintzatzea, agure batak ohoragarriak hitzik ez baitzuen egiten malaysieraz, eta kubatarraren eta portugaldarraren arteko mestizoak itzuli behar izango zion batakari kapitainaren mintzaldi osoa; baina, zerbaitengatik ere, kapitainaren iritzian malaysiera zen han hizkuntzarik egokiena)–. Aizak ondo, mu-

tiko, mutil batzuk behar ditiat, sendoak, ausartak, nirekin etortzeko arrantza egitera. Arrantza egitera, entenditzen?

Itzuli zuen mestizoak, eta alkateak baiezkua mugitu zuen burua, ulertzen zuela erakusteko; jiratu zen gero entzuleria zabalarengana, eta ageriko arrakasta izan zuen mintzaldi bat zuzendu zien.

–Nagusiak esaten du –itzuli zuen mestizoak–, herri osoa joango dela kapitain *tuanarekin* arrantza egitera *tuanak* nahi duen lekura.

–Horixe. Esaiek, bada, Deabruaren badiara joango garela ostra bila.

Haren ondoren eztabaida biziko ordu-laurden bat igaro zen, herri osoak parte hartu zuena, atsoek bereziki. Azkenean kapitainarengana jiratu zen mestizoa:

–Jauna, esaten dute Deabruaren badiara ezin dela joan.

Kapitaina gorritzen hasi zen.

–Eta zergatik ez?

Mestizoak sorbaldak jaso zituen.

–Han dauden tapa-tapak direla-eta. Deabru horiek, jauna.

Kapitainaren aurpegia kolore morea hasi zen hartzen.

–Orduan esaiek joaten ez baldin badira, hortz guztiak txiki-txiki egingo dizkiedala... moztuko dizkiedala belarriak... zintzilikatuko ditudala... eta su emango diodala beren *kampong* zorritsu honi! Entenditzen?

Mestizoak leialtasunez itzuli zuen hura dena eta beste solasaldi luze bizi bat izan zen. Azkenean kapitainarengana jiratu zen mestizoa.

–Esaten dute, nagusi, Padang-eko poliziarengana joango direla salaketa bat aurkeztera, *tuanak* mehatxatu dituela-eta. Badira legeak horren kontra. Alkateak dio ez dituela gauzak horrela utziko.

Ñabardura urdinkara hartu zuen Van Toch kapitainaren aurpegiak:

–Ba esaiok –esan zuen orroka– nik, zera...

Eta etenik gabe mintzatu zen hamaika minutuz gutxiena. Mestizoak bere hitz-erreserba agortu zitzaion arte itzuli zuen; eta batakekin eztabaida luze baina mamitsu bat izan ondoren, esan zion kapitainari:

–Esaten dute, jauna, prest daudela auziari uko egiteko *tuanak* isun bat ordaintzen badie herriko agintariei. Aipatu dute... –Zalantza egin zuen une batez–, berrehun errupiatiko isuna, baina gehiegixko da, jauna... Zuk bost eskaini.

Arrasto beltzetan zatitzen hasi zen Van Toch kapitainaren larruazala. Lehendabizi munduko batak guztiak akabatzeko asmoa azaldu zuen, murriztu zuen zigorra gero hirurehun ostikoraino, eta azkenik adierazi zuen aski izango zuela alkatea Amsterdameko Kolonietako Museorako disekatzen bazuten. Batakak, bestalde, berrehun errupiatik gurpil bateko burdinazko punpa bateraino jaitsi ziren, eta azkenean tematu ziren kapitainak, isun gisa, gasolinarekiko pizgailu bat behar ziola eman alkateari.